

## GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BORROKALARIAK

### 0. Edukiak

Giza Eskubideak orokorrean.  
Bakea.

### 1.-Definizioa

Mundu mailan, Giza Eskubideen alde borroka egin duten pertsona adierazgarri eta erreferenteak ezagutzea.

### 2. –Helburuak

- Herralde ezberdinetan Giza eskubideek alde la egin duten pertsonak ezagutu.
- Informazioaren erabilpena eta ordena, kooperazioa eta lan taldearen garapena ezagutu.
- Giza eskubideekiko errespetua, ardura eta jakin mina sustatu.

### 3. -Partaideak

20 pertsonako taldea.  
Adina: 12 urtetatik gorakoak.

### 4. –Materiala

Talde txiki bakoitzeko 30 kartako jolasa.  
Guraizeak.  
Karta zorroak (sobreak).  
Nahi izan ezker: pegamentoa eta kartak gogortzeko kartulina.

### 5. –Hasierako oharrak

Talde txikia.  
Talde handia.

### 6. Garapena

Taldea talde txikiagotan banatuko dugu (3 edo 4 lagunetakoa) eta talde bakoitzari eztabaidarako kartak banatuko dizkiogu.

Talde bakoitzak kartak lurraren gainean buruz bera barreiatuko ditu eta esango zaie, karta hauetan, giza eskubideen alde lan egin duten 6 pertsonen bizitzaren azalpena aurkituko dutela. Jolasaren helburua, gertakaria dagokion pertsonarekin lotzea da eta beraz, bakoitzaren bizitzaren deskripzio labur bat egitea.

Pertsonaia bakoitzari 5 karta dagokio (hau da, “A”, “B”, “C”, “D” eta “E” kartak). Partaide bakoitzak kartak hartu beharko dituzte banan bana amaitu arte. Denbora emango zaie banaka eta isiltasunean irakur ditzaten bertako bizipenak.

Ondoren talde bakoitzari bere pertsonaiaren bizipenak biltzeko erabiliko duten estrategiak erabakitzen utziko diegu. 15-20minutu beharko dira ekintza hau burutzeko.

Ondoren, talde guztiak bilduko gara eta ordezkari bakoitzak, bere hitzekin, pertsonaia bat aurkeztuko digu. Ondoren, beste taldeek ere pausu berdina emango dute azkenean pertsonaia guztietaz hitz egiteko denbora izango delarik

eta taldeek beren kartak era egokian sailkatu dituztela ziurtatzeko aukera izango dutelarik.

### **7. -Ebaluaketa**

Ariketa erraza egin al zaizue? Zein estrategia erabili dut alde bakoitzak pertsonaiaren bizitza sailkatzeko? Zein pertsonai azen ezaguna eta ezezaguna? Zergatik ezagutze ditugu batzuk besteak baino hobeto? Harritu al dizue emandako informazioak? Zer da gehien harritu dizuena? Zer egingo lukete pertsonaia hauen tokian egon izan balira? Zer ekintza burutu dezake jendeak orokorrean?

### **8. -Iturria**

COMPASS, Gazteekin Giza Eskubideak lantzeko eskuliburua Europako batzordeko argitalpenak .

## GEHIGARRIA 1

### LAGUNGARRIA DEN MATERIALA


#### Eztabaidarako kartak

<p><b>A</b></p> <p>"Txurien menderapenaren aurka borrokatu dut eta beltzen menderapenaren aurka borrokatu dut. Gizarte demokratiko eta librearen ideia alderantz borrokatu dut pertsona guztiak elkarrekin bizi eta aukera berdina izan ditzaten. Lortu daitezkeen ideala da eta bizitzeko arrazoia. Baina beharrezkoa izango balitz, prest nengokeen ideal honen alde bizitza ere emateko</p> <p><i>Nelson Mandela</i></p>	<p><b>A</b></p> <p>"Mingarriak izan ziren topaketa batzuen ostean, baina aldi berean indartzeko baliagarriak. Nire begiekin ikusi nuen barbarie moralaren sakon sakonetik nola ateratzen zen oihu hau: "nire errua da" eta nola, oihu honekin, jasaileak (egoera jasaten ari zenak), bere burua "gizakia" izendatzeko eskubidea berreskuratzen zuten</p> <p><i>Evgente Ginzberg</i></p>
<p><b>B</b></p> <p>Umtacatik gertu dagoen herri batean jaio zen eta Hegoafrikako Errepublikako Presidente izateko aukeratu zuten bertan ospatutako lehendabiziko hauteskunde demokratikoetan 76 urte zituela. Hortik aurrera bere bizitza</p>	<p><b>B</b></p> <p>Rusian jaio zen 1906an eta Moskun hil zen 1977an. Irakasle eta kazetari gisa lan egin zuen umiltasunez estalinen erregimenak garbia izan ez zen epaiketa batean terrorista izendatu zuten arte. 18 urte iragan zituen....</p>
<p><b>C</b></p> <p>Apartheidaren aurka borrokatzeari eskaini dio (aurreko txurien gobernuak gehiengo beltzaren kontra erabilitako sistema arrazista desagertarazteko). Hainbat errepresio mota bizitu zituen: bileretan parte hartzea debekatu zitzaion, gordetzera behartu zitzaion eta azkenik,</p>	<p><b>C</b></p> <p>Siberiako bortxazko lanetarako esparru batean baldintza negargarrietan, burutu ez zituzten ekintza batzuegatik beste batzuk ez salatzeagatik. Lehendabiziko urtea bakarrik pasa zuen konfinamendu batean, gela heze batean. Bertan debekaturik zegoen egunean zehar ariketa egitea, hitz egitea, abestea edo eta etzatea. Beranduago</p>
<p><b>D</b></p> <p>atxiloturik izan zen eta 44 urterekin behin betiko espetxeratzeko zigorra jarri zioten. 28 urte egin zituen katzelan, bere familia eta seme alabetatik urrun</p>	<p><b>D</b></p> <p>Siberiako beste esparru batera bidai zuten eta berekin espetxeraturik zegoen lagun batzuei laguntzeagatik, zigorrik txarrena jasan zuen; gutxik lortu zuten handik bizirik ateratzea.</p>
	

<p>A</p> <p>"Egunen batean, herri hau altxatu eta beren sinesmenaren benetako esanahia biziko duela amesten dut: egia haiek nabarmenak direla baieztatzen dugu: pertsona guztiak berdin sortuak direla". Nire 4 seme-alabak beraien azalarengatik epaituak izango ez diren herrialde batean biziko naizela amesten dut, baizik eta beren izaeraren ezaugarriengatik"</p> <p style="text-align: right;">Martin Luther King</p>	<p>A</p> <p>"Ezbiolentzia da gizakiak bere esku duen indarrik handiena. Gizakiak asmatutako arma suntsigarriena baino indartsuagoa da"</p> <p style="text-align: right;"><i>Mahatma Gandhi</i></p>
<p>B</p> <p>Atlantan jaio zen, Estatu Batuetan, 1929an. Garai hartan legeak beltzei zer behartzen zien: autobusetako, antzerkietako eta zineetako aukeri berezietan esertzeri behartzen zien eta zuriengandik urrun zeuden iturrietatik ura edatera. 28 urte zituenean,</p>	<p>B</p> <p>1869an jaio zen. Bere guraso hinduak Gujararren bizi ziren India oraindik Britainiar Inperioaren menpe zegoen garaian. Independentziaren alde lan egin zuen beti bere sinesmenetatik aldendu gabe:</p>
<p>C</p> <p>beste pertsona batzuekin batera, eliza beltzen erakundea sortu zuten eta bertatik martxak, manifestazioak eta boikot ezbiolentzako sustatzen zituzten arrazakeria banaketaren kontra. Birminghameko (EEBB) protesta batean parte hartu zuen erakundeak; bertan, ehundaka eskolako ikasleek kaleak bete zituzten</p>	<p>C</p> <p>biolentzia gabe eta erlijioen tolerantzian oinarritutako protesta egitea nahiz behin baino gehiagotan txilotu eta espetxeratua izan zen. Bere herritarrek modu biolentoak aritzen baziren bai bere artean, bai eta britaniako "Raja"-ren aurka, biolentzia desagertarazten laguntzen zuen. 385km-tako martxa bat gidatu zuen Indian</p>
<p>D</p> <p>abesten. Poliziak trebatutako txakurrekin esku hartzeko agindua izan zuen eta suhiltzaileek berriz, presio handiko mahukarekin(mangerarekin). Atxilotua eta espetxeratua izan zen.</p>	<p>D</p> <p>eta bere jarraitzaileei konbentzitu zien poliziaren eta armadaren indarkeria jasan zezaten erantzunik eman gabe. Bere bizitzako 2.338 egun igaro zituen espetxean bakearen alde eskaini zuen bere bizitza luzean.</p>



©MTI




©MTI

<p><b>A</b></p> <p>"Ez dezagun regimen militarra deusestatu eta desagertarazi, beraiek gu desagertarazi nahi gaituzte baina... gure mugimenduaren helburua gure gizarteari segurtasuna eskaintzen duen gizartea eraikitzea da, baita armadari ere."</p> <p style="text-align: right;"><i>Daw Aung San Suu Kyi</i></p>	<p><b>A</b></p> <p>"Ai, nire buruan dudan abesti triste hau presoei laguntzen dieten guztiei bidaltzen diet. Garai ilun hauetako sentimendu hauek -inoiz ez ditut tortura latz hauek ahaztuko. Espetxean gaur egun dagoen miseria huez dadila inoiz bizidun sensible bati berriro ere egin"</p> <p style="text-align: right;"><i>Ngawang Sangdrol</i></p>
<p><b>B</b></p> <p>1945ean jaio zen, Burman; koloniaren kontrako independentziaren alde borrokatzen zuen heroi nazional bate alaba zen. Herritarrentzat demokraziaren alde lan egiten zuen liderra bihurtu zen</p>	<p><b>B</b></p> <p>Tibet Chinatik independente izan beharko lukeela uste duen monje budista bat da eta 10 urte zituela izan zen lehendabiziko aldiz atxilotua. Bere delitu bakarra "</p>
<p><b>C</b></p> <p>eta erregimen anker (bihotz-gabe) baten kontra; bere kontra rifleak ustutzeko helburua zuen unitate militar batek ia erail zuen. 6 urteetan zehar, mundutik guztiz isolaturik egon zen etxeko atzipenaldia (atxiloketa) jasaten nahiz eta ez zegoen inolako delituegatik akusatuta. Askatua izan ondoren gobernuak</p>	<p><b>C</b></p> <p>Tibeteko independentziaren aldeko manifestazio batean parte hartzea izan zen. 15 urterekin berriz ere atxiloturik izan zen eta 3 urtez espetxera epaitua. Independentziaren alde abestu izanagatik, epaia luzatu zioten eta beranduago, 8 urte gehiagotara</p>
<p><b>D</b></p> <p>bere senarraren bizitzaren azken egunetan ere bisitatzea ukatu zion. 2001ean bere etxean giltzapeturik zegoen, sarrera kontrol zorrotza eta telefono linea mozturik zituelarik.</p>	<p><b>D</b></p> <p>Espetxeko patioan euripean zutik zegoen bitartean, "Tibet-entzat askatasuna" oihukatzeagatik. Gaur egun giltzurrunetako gaitza dauka jasandako torturen ondorioz.</p>



©Gamma Press



©Tibet Information Network